

FUNTSEZKO JARDUERAK

Balio proposamena sortzeko egin behar diren funtsezko jardueren artean, lehena gure bezeroen nahiak eta beharrak ulertzea izango litzateke. Izan ere, bezero bakoitzak produktua gauza desberdinetarako behar du. Batzuek, gauzak gogorarazteko, eta beste batzuek aldiz, bakarrik sentitzen direlako.

Bigarren jarduera, gure produktua definitzea izango litzateke eta bere ezaugarri nagusiak nabarmentzea. Garrantzitsuena, pertsona helduen bizitza erraztuko duela da, eta baita zaharretxeetako langileena ere. Zaharretxetako medikuek pertsona helduei gorputzean txipa injektatzeaz gain, audifono moduko bat ere jartzen lagunduko die, egunean zehar soilik eramango dutena. Horrela, txipak zerbait ongi ez dijoakiela detektatzean, guri abisua bidaliko digu eta zuzenean jarriko gara kontaktuan beraiekin.

Hirugarrenik bereizketa bat egin behar dugu gure produktua zerk egiten duen berezia eta abantaila lehiakor sinpleak nabarmentzeko. Guk diseinatutako produktua munduan bakarra da, beraz, ez dugu lehiarik beste enpresaren batekin. Aitzitik, bakardadea sentimendu ohikoa da zaharretxeetan, eta hori konpontzeko jada badaude boluntario talde batzuk adinekoei bisitak egiten dizkienak dohainik. Hala eta guztiz ere, proiektua diseinatzeko unean aurreikusi genuen arazoa eta arrakasta izango duelakoan gaude.

Eta azkenik, prezio erakargarri bat ezarriko dugu bezero gehiago erakartzeko. Hasieran bi zaharretxeekin hasiko gara Remember programa martxan jarri eta erabileraren arabera hobekuntzak txertatzeko. Aurrerago, programa guztiz garatua dagoenean eta sistema osoa kontrolatuta daukagunean, zaharretxe gehiagotan eskeiniko dugu.